

GHEE-CEESPV 2024-2028

PLAN ESTRATEGIKOAREN

ZIRRIBORROA



GIZARTE HEZITZAILEEN
EUSKADIKO ELKARGOA
COLEGIO DE EDUCADORAS
Y EDUCADORES SOCIALES
DEL PAIS VASCO

GHEE
CEESPV





Dokumentu honek lau urtera begirako (2024-2028) GHEE-CEESPVko Zuzendaritza Batzorderako Hautagaitza azaltzen du. Planaren xedea da datozen lau urteetan, Batzordea eratzeko elkargo osoak babestu eta hautatuak izatekotan, Elkargoak lortu nahi dituen helburu eta jarduketak definitzea. Era berean, plangintza hau Batzordearen kudeaketa ebaluatzeko eredu bat eraikitzeke elementu gisa ere erabiliko da, horrela erakundearen prozesu sendo bat eraikitzeke aukera egongo baita.

Planaren egituran 6 lerro estrategiko daude, eta horietan lau urterako helburu batzuk biltzen dira; horrela, gidalerro argi bat geratzen da markatuta, geure ekonomi eta giza baliabideak modu efizienteagoan kudeatzea ahalbidetuko diguna eta, ondorioz, burutu beharreko lanak eta ahaleginak ardaztu ahalko ditugu. Era berean, urtero Urteko Plan bat aurkeztuko da, eta bertan zehaztuta geratuko dira Batzordeak burutu beharreko ekintza eta zeregin berezietako lerro estrategikoetako bakoitza.

Gure aburuz, Planak gardentasunaren alde egiten du, eta elkargokideek Elkargoan burutzen den jarduerari buruzko informazioa jasotzeko aukeraren alde ere bai; horrela, atxikimendu aktibo bat lortuko dugu kideengandik, eta elkargoa haien kezka eta beharri zuzen erantzuten dien espazio bat izan dadin lortuko dugu.



Plan Estrategikoaren funtsezko zeregina da 6 lerro estrategikotan banatutako sei helburu handiri erantzuna ematea:

| LERRO ETRATEGIKOA | | HELBURUA |
|-------------------|---|---|
| 1 | ELKARGOA SENDOTZEA | Elkargoko parte-hartze dinamikak indartu eta erraztea elkargokideen beharrizanei eta erakundearen errealitateari doitu, eta elkargoko kide kopurua handitzea elkargoaren barne egitura sendotzeko. |
| 2 | GIZARTE ETA HEZKUNTZA ESKU-HARTZEAREN GARAPEN TEKNIKOA | Lanbideari buruzko hausnarketa eta eraikuntza tekniko-praktikoa sortzea, bai eta Euskal Herriko gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen ezagupen zientifikoari ekarpena egitea. |
| 3 | LANBIDEA DEFENDATZEA | Lanbidearen alde egitea administrazio publikoarekiko eta beste erakunde batzuekiko harremanaren bidez, bai eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen arloan eragina duten Lege, Dekretu, Agindu eta abarrei ekarpenak eginez; eta estrategia juridiko propioa ezartzea. |
| 4 | ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK | Administrazio publikoarekiko eta beste erakunde batzuekiko harremanak sendotzea, gizarte esku-hartzearen erreferentzi izateari eutsiz. |
| 5 | ELKARGOKO KIDEEI EMANDAKO ZERBITZUAK | Elkargoko kideei ematekoa den zerbitzu zorroa optimizatu eta handitzea, euren eta lanbidearen beharrizanei erantzuna emanez. |
| 6 | ADMINISTRAZIO, EKONOMI ETA KOMUNIKAZIO KUDEAKETA | Administrazio eta kudeaketa sistema etikoa eta kalitatezkoa garatzea, elkargokideen eta elkargoaren errealitatearen beharrizanei doitutakoa. |



1. ELKARGOA SENDOTZEARI BURUZKO LERRO ESTRATEGIKOA

Elkargoko parte-hartze dinamikak indartu eta erraztea elkargokideen beharrezanean eta erakundearen errealitateari doitu, eta elkargoko kide kopurua handitzea elkargoaren barne egitura sendotzeko.

| ARLOA | HELBURU ESPEZIFIKOAK | EKINTZAK |
|--|--|--|
| <p><u>ANTOLAKETA ETA KOHESIOA</u></p> | <p>Gobernu Batzordearen funtzionamendua sendotzea</p> <p>Ordezkaritzetan, batzordeetan eta lan-taldeetan parte hartzen duten pertsonen parte-hartzea eta kohesioa handitzea</p> <p>Parte-hartze organoen arteko koordinazioa sustatzea</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Gobernu Batzordearen hileroko bilerak - Batzorde iraunkorraren hamabostean behingo bilerak - Kargu eta zereginen banaketa - Parte-hartze organoen funtzionamenduaren baterakuntza (lurralde ordezkaritzak, lan-batzordeak eta lan-taldeak) - Lan-batzorde eta lan-talde berriak eratzea - Gobernu batzordearen bi hileroko bilera zabalduak - Orain arte buruturiko lanaren dokumentazioa jasotzea |
| <p><u>ELKARGOTZEA</u></p> | <p>Elkargoko kide kopurua handitzea, berorren egitura sendotzeko</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Publizitate strategiaren definizioa eta garapena - Parte-hartze organoen lanaren zabalkundea - Urteroko jardunaldiak antolatzea - “Elkargoaren lagunak” taldea biziberritzea (ikasleak eta beste profesional batzuk) - <i>Ate irekiak</i> jardunaldiak egitea - Elkargoan izena emateko sistema hobetzea |



| | | |
|-----------------------------|---|--|
| <u>PARTE-HARTZEA</u> | Elkargoko parte-hartze aktiboari balioa eman eta erraztea | <ul style="list-style-type: none"> - Parte-hartzea sustatzeko plan bat diseinatzea - Parte-hartze plana gauzatzen joatea |
|-----------------------------|---|--|

2. GIZARTE ETA HEZKUNTZA ESKU-HARTZEAREN GARAPEN TEKNIKOARI BURUZKO LERRO ESTRATEGIKOA

Lanbideari buruzko hausnarketa eta eraikuntza tekniko-praktikoa sortzea, bai eta Euskal Herriko gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen ezagupen zientifikoari ekarpena egitea ere.

| ARLOA | HELBURU ESPEZIFIKOAK | EKINTZAK |
|---------------------------------------|--|--|
| <u>FOROAK</u> | Gizarte esku-hartzearekin zerikusia duten foroetan ikuspegi profesionala ematea | <ul style="list-style-type: none"> - Erreferentziazko pertsonen zerrenda eguneratzea - Izaera teknikoa duten foroetan parte hartzea - Administrazio publikoaren kontseilu eta batzordeetan parte hartzea - Ikastaro eta jardunaldietan parte hartzea |
| <u>DOKUMENTAZIOA</u> | Lanbidearenak diren dokumentu teknikoak egin daitezen sustatzea | <ul style="list-style-type: none"> - Lanbidearen garapen teknikoarekin lotutako dokumentazioa sortzea - Lanbidearekin lotutako argitalpen, ikerketa proiektu eta plan estrategikoetan parte hartzea |
| <u>DOKUMENTUEN ZABALKUNTZA</u> | Elkargoan eginiko dokumentazio teknikoa erraz eskuratzeko moduan jartzea Gizarte hezitzaileek eginiko dokumentazio teknikoa ezagutaraztea | <ul style="list-style-type: none"> - Elkargoaren dokumentazio teknikoa argitaratzea - Sare sozialen bidez eta posta elektronikoz zabaltzea - Proiektu, Gradu Bukaerako Lan eta Master Bukaerako Lanen lehiaketak antolatzea |



| | | |
|--|--|--|
| | | <ul style="list-style-type: none"> - Lanbidearekin lotutako lanak hedatzeko irizpideak definitzea - Lanbidearekin lotutako lanen zabalkuntza |
|--|--|--|

3. LANBIDEA DEFENDATZEARI BURUZKO LERRO ESTRATEGIKOA

Lanbidearen alde egitea administrazio publikoaren eta beste erakunde batzuekiko harremanaren bidez, bai eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen arloan eragina duten Lege, Dekretu, Agindu eta abarrei ekarpenak eginez ere; eta estrategia juridiko propioa ezartzea.

| ARLOA | HELBURU ESPEZIFIKOAK | EKINTZAK |
|--|---|---|
| <u>GIZARTE ETA HEZKUNTZA ESKU-HARTZEAREN DEFENTSA</u> | Gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen alde egitea, propioak diren espazio profesioaletan, bai eta beste profesional batzuekin partekatutakoetan ere | <ul style="list-style-type: none"> - Erakunde kontratugileekin ekintza pedagogikoak diseinatzea eta ezartzea, lanbide-profila definitu eta defendatu dadin laguntzeko - Lanbidearen funtzio eta eskumenen katalogoa berrikusi eta ekarpenak egitea, gizarte heziketaren irudi profesionala langile funtzionarioen Lanpostuen Zerrendan sar dadin - Sektorekako batzordeetara bertaratzea |
| <u>ESTRATEGIA JURIDIKOA</u> | Gure irudi profesionalaren defentsarako estrategia juridiko bat ezartzea | <ul style="list-style-type: none"> - Estrategia juridikoari buruzko dokumentua berrikustea - Estrategia juridikoa abian jartzea - Estrategia juridikoari buruzko Terrum Fundazioaren prestakuntza diseinatu eta abian jartzea |



4. ERAKUNDEEKIKO HARREMANEI BURUZKO LERRO ESTRATEGIKOA

Administrazio publikoarekiko eta beste erakunde batzuekiko harremanak sendotzea, gizarte esku-hartzearen erreferentzi izateari eutsiz.

| ARLOA | HELBURU ESPEZIFIKOAK | EKINTZAK |
|---|---|---|
| <p><u>HERRI ADMINISTRAZIOA</u></p> | <p>Administrazio publikoarekiko harremanak eguneratzea</p> <p>Gizarte eta hezkuntza esku-hartzearekin zerikusia duten organismoekin baterako lana sustatzea</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpen bilerak, Eusko Jaurlaritzan - Aurkezpen bilerak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundietan - Aurkezpen bilerak, hiriburu eta populazio handieneko hirietan - Erakunde publiko bakoitzarekin baterako lan-egitasmo bat diseinatu eta abian jartzea |
| <p><u>UNIBERTSITATEAK</u></p> | <p>EAE n Gizarte Hezkuntza gradua ematen duten unibertsitate-zentroekiko (EHU-UPV, Deusto eta UNED) lankidetzak hitzarmenak eguneratu eta sendotzea</p> <p>Unibertsitateekin egiten den baterako lana egonkortu eta jarraipena ematea</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Orain arte unibertsitateekin egiten ari den lanari eustea - Unibertsitateekin ditugun hitzarmenak berrikusi eta eguneratzea - Hitzarmenetan kokatutako ekintzei dagokienez, lurralde ordezkarietzi laguntza eman eta gainbegiratzea - Parte-hartze organoen arteko lan koordinatuaren antolaketa |



| | | |
|---|--|--|
| <p><u>LANBIDE ENTITATEAK</u></p> | <p>Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusian parte-hartze aktiboari eustea</p> <p>Beste elkargo eta gizarte esku-hartzean lan egiten duten erakundeekiko harremana eta elkarlana sustatzea</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Asanbladetan parte hartzea - Ahal den neurrian, batzorde edo ordezkaritzetan parte hartzea - Gizarte Hezkuntzari buruzko Estatu Biltzarrera bertaratu eta parte hartzea - Gizarte Langintza eta Psikologia elkargoekiko kontaktua - Gizarte Integratzaileen Elkartearekiko kontaktua - Entitate bakoitzarekin burutzen den lanaren balioespena eta antolakuntza - Erabakitako lankidetzaren bidezko aktibazioa |
| <p><u>SINDIKATUAK ETA HIRUGAREN SEKTOREA</u></p> | <p>Sindikatuak eta hirugarren sektoreko entitateek gizarte esku-hartzean kokatutako lanbidea garrantzitsutzat hartzea</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio eta harremanetarako irizpideen definizioa - Sindikatu eta hirugarren sektoreko entitateekiko topaketa espazioak - Eragileak identifikatzea |



5. ELKARGOKO KIDEEI EMANDAKO ZERBITZUEI BURUZKO LERRO ESTRATEGIKOA

Elkargoko kideei ematekoa den zerbitzu zorroa optimizatu eta handitzea, euren eta lanbidearen beharrezan erantzuna emanez.

| ARLOA | HELBURU ESPEZIFIKOAK | EKINTZAK |
|---|---|--|
| <p><u>PRESTAKUNTZA</u></p> | <p>Elkargoko kideen beharrezan doituako prestakuntza eta espazioak eskaintzea</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza arloaren enkargua garatuko duen batzorde bat eratzea - Prestakuntza beharrezan diagnostia aldizka eguneratzea - Prestakuntzen garapenerako irizpideak definitzea - Geuk eskainitako jardunaldi, foro eta topaketak |
| <p><u>ORIENTAZIO SOZIOLABORALA</u></p> | <p>Lan eskaintzen hedapen zerbitzua optimizatzea</p> <p>Elkargokide profesionalentzako lan orientaziorako zerbitzu bat eraikitzea</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Kideei lan eskaintzak bidaltzen jarraitzea - Lan eskaintzak zabaltzeko irizpideak berrikusi eta eguneratzea - Lan orientazio eta akonpainamendu zerbitzua diseinatzea - Lan orientazio eta akonpainamendu zerbitzua abian jartzea - Orientazio soziolaboraleko eduki espezifikoak arloka definitzea - Gai honekin lotutako eskuorriak diseinatzea |



| | | |
|---|--|---|
| <p><u>ELKARGOKO ESPAZIOAK</u></p> | <p>Bilera eta ikerketa lanetarako, Elkargoko espazio presentzialen eta telematikoen erabilera erraztea</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Elkargoaren egoitza eta online plataforma eskaintzea elkargokideek erabil ditzaten - Unibertsitateetako dokumentazio zentroetarako sarrera negoziatzeko proposamena - Elkargoaren Intranet zerbitzua abian jartzea - Geure dokumentu zentroa sustatzea |
| <p><u>ZERBITZU ERAKUNDEEKIKO HITZARMENAK</u></p> | <p>Beste zerbitzu-erakunde batzuekiko hitzarmenen garapena optimizatzea</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Jadanik abian diren hitzarmenak berrikusi eta eguneratzea - Hitzarmen berriak ezartzeko irizpideak definitzea - Aseguru-entitateekiko hitzarmenei eustea - Hainbat hitzarmen egiteko aukerak aztertzea, honako hauekin: <ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza entitateak - Laguntza psikologikoa - Aholkularitza juridikoa |



6. ADMINISTRAZIO, EKONOMI ETA KOMUNIKAZIO KUDEAKETARI BURUZKO LERRO ESTRATEGIKOA

Administrazio eta kudeaketa sistema etikoa eta kalitatezkoa garatzea, elkargoko kideen eta elkargoaren errealitatearen beharrezaneko doituakoa.

| ARLOA | HELBURU ESPEZIFIKOAK | EKINTZAK |
|------------------------------|--|--|
| <u>ADMINISTRAZIOA</u> | Elkargoaren barne administrazio lanak optimizatzea, lanbide egitura sendotzearen aldekoa izango baita | <ul style="list-style-type: none"> - Elkargoko kide-egiteak kudeatzea - Idazkaritza teknikoaren funtzio eta zereginak berrikusi eta eguneratzea eta Idazkaritza Tekniko Politiko baten balorazioa. - Elkargoko datu eta informazioaren kudeaketa - Telefonoz eta telematikoki eginiko galderari erantzuna ematea |
| <u>DIRUZAINNTZA</u> | Baliabideak kudeatzea, administrazio-kalitatea eta erakundearen bideragarritasun ekonomikoa bermatuz. | <ul style="list-style-type: none"> - Urteroko balantze eta aurrekontuak egitea - Kontabilitatearen kudeaketa irizpideak definitzea - Baliabide ekonomikoak kudeatzea - Kudeaketa etikorako plan bat egiteko aukera aztertzea |
| <u>KOMUNIKAZIOA</u> | Barne komunikazio koherente eta etengabekoa bermatzea Gaur egun dauden kanpo-komunikaziorako prozedurei eutsi eta berriak sortzea | <ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio plan bat egitea - Parte-hartze organoen artean partekatutako ekintza eta jardunaldien egutegi bat sortu eta erabiltzea - Ekintzak lan-egunkari batean jasotzea - Informazio buletin bat sortzea - Argitalpenak web orriaren, sare sozialen eta Intraneten bidez hedatzea |